

ELAren hitzak

Euskaldunon Egunkaria, 1997-02-23: 3.

ELAren historia apur bat ezagutzen duenarentzat argi dago gaurko honen jokabide euskaldun eta abertzalearen zentzua. Mende honen hasieran UGT eta CNTren gehiengoa inposatu zuten inperialki Bilboko nasatik Mediterraneoko kaietaraino. Gaur aldatu egin dira gauzak, euskal sindikalismoak gehiengoa du Euskal Herrian, nahiz eta, zentzu onez, monopoliorik ez inposatu, ez hizkuntzari dagokionean, ezta naziotasunean ere; baina zaintzen ditu, halere, euskal gizakiaren alor guztiak, eta sartzen da *politikan*, batzuek dioten legez: batez ere Estatuak salatuz. Estatuari salatzen dizkio: ekimen poliziala eta legediak bakarrik ezartzea, eta ez justiziaren bide baikor eta gizakorragoak; espetxe politikari dagokionez ez dituela bere legeak ere betetzen; ez duela nahiko egiten negoziazio prozesuak pizteko edo berez indarrean daudenak bultzatzeko. Itsuak ere ikusten dituenak! Bestalde, Granada, Madril, Tolosa eta Bilboko atentatuak biziki gaitzetsi ditu ELAk, eta Jose Antonio Ortega eta Cosme Delclaux libra ditzatela eskatu du behin eta berriz. ELAri LABekin sarri joaten dela ere aurpegiatu diote, baina politika espainolistetan sarriegi gertatzen dira elkartze koiuntural hauek, denak sailduki.